

Etxerako lanak besteei jartzen



**ZIGOR
ETXEBURUA URBIZU**
EUSKARA IRAKASLEA

Aurreko batean, EAEko hizkuntza politikako sailburuordearen txio bat ikusi nuen, iragarriz 2020an egingo dela entitateetan hizkuntza ohi-turen aldaketa eragiteko *Euskaraldia* ekimena. Sailburuordea etxerako lanak besteei jartzen ari zitzaizen inguruabar horretan, euskara erabiltzeko eta gartzeko oztopoen erakusle diren hainbat gertakizun izan ziren, euskara hizkuntza ofiziala izanik, bere normalizazioa bultzatzeko arau eta plan urtetsuak dituen lurraldean.

Gogoan izango duzuen, Eneka Alvarez donostiarrak isuna jaso du, ertzainari euskaraz egiteagatik. Herritar batek azaldu zuen ere Astigarragako pediatra elebakar erdaldunak esan ziola: *“Pues si tu hija no me entiende tenemos un problema”*. Bide beretik, erizain gazte batek kontatu zuen esan ziola duela 35 urtetik Osakidetzako langile den erizaintzako gainbegiraleak: *“Si me dicen mi nombre en euskeriko, ni lo entiendo”*. Egun horietan ere, Eusko Legebiltzarrean, ez zioten utzi EH Bildu taldeari lege proposamen bat tramitatzen, euskaraz idatzita egoteagatik. Batera, duela bi urte eskas onartutako Udal Legeak agindu arren udalerrien hizkuntza egoeran eragin dezaketean planen eta egitasmoen eragin linguistikoa aztertzea, Jaurlaritzako

Lurralde Antolamenduko Sailak muzin egin zion. Tira, jarrai nezake, baina sako-nago aztertu nahi duenak irakur dezake BAT soziolinguistika aldizkariaren 109. alean berriki argitaratu dudana artikulua: *EAEko Administrazioa euskalduntzeko sistemaren balantze bat*.

Aipatutako horiek akatsak direla esango du inork; nire ustez politika baten erakusle dira. “Nahiaren eta ezinaren politika” errekurtsio adeitsua erabil nezake politika hori azaltzeko, baina Daniel Escribanoren *La diglòssia és morta. Visca la diglòssia? Sobre la ideologia lingüística del nacionalisme basc conservador* (2017) artikulua beste ikuspegi zorrotzago bat eman dit. Horren arabera, EAEko (EAJ-ren mendeko) erakundeek erabaki dute, diglosiaren fenomenoak hizkuntza ordezkapenaren fase gisa, eta, beraz, fenomeno txartzat azaldu ordez, bere egitea euskararentzat baliagarri gisa. Goitik behera ukatzen du adituak hori horrela izan daitekeenik, eta argitzen du diglosia positibo hori baliabide diskurtsibo eta sasi-zientifiko gisa baliatzen duela EAJk, zilegitzat aurkeztu edota estaltzeko euskararen berreskurapenerako benetan beharko litzatekeen politika egiteari uko egin izana. Merezki du irakurtzeko, bereziki gomen-datzen diot EAEko hizkuntza politikako sailburuordeari. ●

Mapatxeak eta mandarinak



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Nafarroako oraingo gobernuko Hezkuntza Departamentuari izena aldatu beharko liokete, eta Hezkuntza Zaila jarri. Ez dut ortografia-hutssegitea egin, ez. *Sail* da sinonimoa, baina hizki aldaketak definituko luke departamentuak jasaten duen guztia zeozer proposatzen duen bakoitzean.

Departamentuak inkesta batean ikasleei sexua markatzeko eskatzen die: neska, mutil, bertze aukera batzuk. Oraingoan ere Ana Beltran PPkoak bota du perla, ornitorrinko ere izan litezkeela Nafarroako ume eta gaztetxoak. Ez dut andrazkoa definituko, bere burua ederto

(des)kalifikatzen du-eta.

PPko beste andre “ilustre” batek, Ana Botellak, sexu bereko ezkontzak legez-tatzear zeudela, bota zuen sagar bat eta madari bat gehitzean ezin dutela inoiz sagar bi eman. Komentariorik ez.

Harrigarria zait andrakume bien konparazio naturalistikoa, sofistikatu plantak eginda, naturatik urrun, jendea mespretxatzen dutelakoan daude. Ez, bada!

Ornitorrinko edo mapatxe, madari edo mandarina, denak ederrak, barruko sena hori da-eta. Naturala delako gu garena; gu natura ere bagarelako. Horregatik, sentitzen duguna izan gintezke. ●